



3. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

AZTERKETA-EGUNA _____

AZTERKETA-TOKIA _____

ARGIBIDEAK

➤ Azterketak bi zati ditu:

Azterketa idatzia

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmena eta idazmena. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 45 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren aurrean datozen argibideak, eta egin ezazu bertan jartzen duena.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaituz letra txukuna egiten.

1. IRAKURMENA

- **Ariketa-mota:** HUTSUNEAK BETETZEKO ESALDI-SORTA
- **Nola egin:**
 - Ondorengo testutik 10 esaldi kendu dira.
 - Zenbaki bakoitzak esaldi bat kendu dela adierazten du.
 - Aukera ezazu erantzun-orrian zenbaki bakoitzari dagokion esaldia eta erantzun-koadroa osatu, laukitxo bakoitzari dagokion letra jarritz.
 - Erantzun-koadroa osatzen hasi aurretik, bai artikulua osoa, bai kendutako esaldiak, irakurtzea gomendatzen dizugu.

KRISIAN OTE DAGO FAMILIA?

Morgan antropologo klasikoak odolkidetasuna deitu zuen, zenbait historialarik eta antropologok ahaidetasuna, eta soziologoek, berriz, familia. Hiru izen gauza bera izendatzeko. (**__1__**). Minerva Donald Madrilgo Unibertsitateko Soziologiako irakaslearen iritziz, esaterako, familia hitzak zentzu etimologikoa galdu du.

(**__2__**). Balioen inguruko zerrendetan lehenengo lekuan agertu ohi da sarri familia, baina zer da zehazki? Familia berba latinez zerbitzaria edo esklaboa esateko erabiltzen zen *famulus* hitzetik dator. (**__3__**). "Besteak beste, ondasunen partekatze moduan ulertu izan da familia eta baita helduen egonkortasun psikikoaren babes moduan ere", dio horren harira Donaldek. Egun, oro har, etxe bereko bizikidetzari deitzen diote soziologoek familia.

(**__4__**). Izan ere, ezkontzatik bereizi egiten da familia. Are gehiago, azalpen horrek ez du aipatzen familia tradizionalaren oinarri izan den heterosexualitatea. Hala, gaur arte, erabilgarria izan den definizioa baztertuta gelditzen ari da Europan.

(__5__). Ez dira bat-bateko aldaketak izan; baina, aditu askoren ustez, aldaketa horiek izan dira, neurri handi batean, familiaren oinarria eta osaera aldatu dutenak, eta baita familiaren ohiko balioen gaineko pertzepzioa aldarazi dutenak ere. Hala, familia tradizionalaren ustezko krisia ez dute, Donalden ustez, familia eredu berriek sustatu, ezta garai bateko familia buruaren figura lausotzen ari izanak ere. (__6__). Beste soziologo askok, hala ere, familia eredu berriak jotzen dituzte tradizionalaren gainbeheraren erantzule.

Arrazoiak edozein direla ere, eta krisia egon edo ez, datuek argi erakusten dute familia tradizionala ez dagoela garairik onenean.

Ameriketako Estatu Batuetan, esaterako, ezkondu gabeko bikoteen kopuruak %72 egin du gora azken hamarkadan. (__7__). Izatezko bikoteak eta sexu bereko bikoteak ere nabarmen ugartu dira. Europan ere joera horiek indartzen ari omen dira.

Eredu berriak ugariak dira: familia homoparentalak, bigarren edo hirugarren ezkontzako familiak, adoptatutako haurrak dituzten familiak, lagundutako ernalkuntzaren bidez jaiotako haurren familiak... (__8__). Beste batzuen ustez, berriz, gabezia askoko familia ereduak dira, eta ez dira gai haurrei behar duten hezkuntza emateko.

“Ingeniaritza genetikoak eta bioteknologiak biziaren jatorria eta aitatasunaren sistema bera alda dezakete. (__9__). Ezin berma dezakegu aitatasuna lege naturalek zehaztuko dutenik”, dio horren harira Donald irakasleak. 25 urte bete dira aurrean Louse Brown lehen ume probeta jaio zenetik. (__10__).

Ainara Argoitia
Berria egunkaria, 2003-11-12
Egokitua

1.1. ERANTZUN-ORRIA

- **Irakurgaia:** "KRISIAN OTE DAGO FAMILIA?"
- **Ariketa-mota:** HUTSUNEA BETETZEKO ESALDI-SORTA

- A. Denborarekin hainbat esangura hartu ditu; baina, askoren ustez, aginpidearekiko lotura hori ez du inoiz galdu.
- B. Azalpen horrek ateak zabalik uzten dizkie interpretazio berriei.
- C. Batzuen ustez, eredu tradizionalaren alde onenak nahiz txarrenak biltzen dituzte (maitasuna, gorrotoa, babesak, indarkeria...).
- D. Familia, osasuna, lana, lagunak eta aisia.
- E. Ordutik hona milaka haur jaio dira munduan lagunduriko ernalkuntzaren teknikari esker.
- F. Arriskua horren handia da, non inork ezin baitezake jakin etorkizunean zein izango den familiaren osaera.
- G. Zenbait adituren ustez, familia berbaren esangura lausotzen ari da, zirriborratzen.
- H. Haren ustez, "egun ez delako ikusten gizarte baten oinarri moduan galdu du familia tradizionalak indarra".
- I. Heriotza eta jaiotza-tasa gutxitzeak, antisorgailuen erabilerak, bizi-itxaropena handitzeak... aldaketak eragin dituzte.
- J. Ikerketa horren arabera, iaz jaiotako haurren %33 ama ezkongabeenak dira.

ERANTZUN-KOADROA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

1.2. ZUZENKETA-ORRIA

- **Irakurgaia:** "KRISIAN OTE DAGO FAMILIA?"
- **Ariketa-mota:** HUTSUNEAK BETETZEKO ESALDI-SORTA
- **Baremazioa:** 6 erantzun zuzen edukitzea eskatzen da

ERANTZUN ZUZENAK

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
G	D	A	B	I	H	J	C	F	E

2. IDAZMENA

- **Ariketa-mota:** GAI BATI BURUZKO IDAZLANA.
- **Nola egin:**
 - Hurrengo orrian gai bat daukazu zeure iritziak azal ditzazun. Gaiarekin batera, laguntza gisa, beraren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil ditzakezun zenbait puntu.
 - Kontuan hartu idazlana egin behar duzula, hau da, ez duela balio gauzak eskematikoki aipatzeak; alderantziz, esaten direnak azaldu egin behar dira, **konposizioa** egin behar da. Bestalde, lagungarri gisa ematen diren informazioko esaldiak beste barik kopiatzeak ere ez du balio.
 - Idazlanak **50 lerro** izan behar ditu, gutxienez. Garrantzitsuena, ostera, ez da luzera hori betetzea, behar bezalako idazlana egitea baizik.
 - Idazlana aztertzeke orduan kontuan hartuko dira gaiarekiko lotura, testuaren egituraketa, erregistroa, testuaren barneko lotura eta gramatika zuzentasuna.

GAIA: ETORKINEN ETORKIZUNA

1989. urtean azaldu ziren lehen gorpuak Tarifako hondartzetan, eta, orduz geroztik, 800 lagun hil eta 5.000 desagertu dira.

Europar etengabe ari da hazten immigranteen kopurua. Hona hemen datu batzuk: 18,7 milioi legezko egoeran daude; eta uste da beste 3 milioi daudela paperik gabe. Espainiako estatuan populazioaren %7,5 dira, eta Frantziakoaren %7,2

Helmugara ailegatu ondoren, xenofobia eta arrazakeria direla-eta, sortzen diren arazoei aurre egin behar diete.

Etorkin gehienek ez dute paperik izaten eta oso erraz erortzen dira mafia baten mende. Egindako lanaren truke oso gutxi ordaintzen diete, baina paperik ez dutenez, ez dira kexatzen.

- Europara immigratzeko arazoak.
- Etorkinen bizimodu berria: lan-motak, bizi-baldintzak, familia...
- Etorkinen eragina harrerako herrialdeetan.
- Arazoa konpontzeko irtenbideak: Atzerritarren Legea...

5

10

15

20

25

30

35

40

45

50

55

60

65

70

75
